



191. zenbakia

· AZAROA 2019 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra, Patxi Irurtzun eta M^a Yolanda Mutiloa Oria.

KOORDINATZAILEAK

Itziar Perez eta Garazi Zabaleta

TIRADA

1.600 aleak

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Juanbeltz Artzaina. Bi domina irabazi ditu Juanbeltz gaztak Bergamoko World Cheese Awards lehiaketa ospetsuan eta haiek bidalitako argazki eder hau jarri nahi izan dugu azalean.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira abenduaren 9an bidalia



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Olerkia



BURUA KENTZEN

Ezkatak. Leire Bilbao, 2006

|| Badira
emakume azalak
ezkata usaina baino itsaskorragoak
Badira
barrua nola hustu jakiteke
urdaileira zuzenean doazen esku emeak
Badira
amantalean batzen diren odolak
Badira
senarraren begirada duten arrainak
Badira
arnasestuz erauzten diren zakatzak
Badira
olatuaren dardara duten gorputzak
Badira
maitale desleialarekin bezala
itsasoarekin oheratzen direnak
Badira
arrainei beraiena bailitz burua kentzen dieten
emakumeak ||





“Nik ez dut etorkizunean pentsatzen, gaurkoan bizi naiz ni. Ezin dizut esan hemen geratuko naizenik”

Begitxu Hernandez Poblete Ciudad Realen, Gaztela Mantxan, jaio zen; baina 20 urte daramatza Euskal Herrian, bere jaioterriko lagun talde batekin Rala izeneko hustutako herri nafarra jendeztatzera etorri zenetik. 8 urte bertan eman ondoren, 12 daramatza Etxalekun, Artzaietxean. Ardiekin lan egiteko eskaintza bat jaso eta hemen gelditu baitzen. Betirako geldituko denik ez du hitza ematen, gaurkotasunean bizi baita, baina gustura dabil Imotzen. Etxalekun zinegotzia izan da eta Pulunpe banatzen du duela 5 urte.

• ZENBAT URTE DARAMAZU PULUNPE BANATZEN?

5 urtez izan naiz. Juanma alkate ohiak engainatu zidan, Cris eta biok hartu genuen ardura, baina berak ez du inoiz banatzen, nik egiten dut beti (barreak). Inguruko bailaretako aldizkaria izanda garrantzitsua iruditzen zait. Orduan ni zinegotzia nintzen kontzejuan, eta neuk hartu nuen. Gustura egiten dut, horrela jende nagusiarekin hitz egiten dut. Atea jotzen dut eta zer moduz dauden galdetzen diet.

• NON JAIO ZINEN?

Ciudad Realen jaio nintzen ni, Gaztela Mantxan, baina 20 urte daramat Euskal

Herrian. Harat eta honat ibiltzen nintzen orduan, gaztea nintzen eta etxetik ihes egin nahi nuen. 30 urte bete nituenean Mantxako talde bat bildu ginen eta Nafarroara etortzea erabaki genuen, hemen hustutako herri asko baitzeuden. Haietako herri bat jendeztatzeko helburuarekin iritsiginen Ralara eta 8 urtez izan ginen bertan.

• HERRIA BIRPOPULATU ZENUTEN ORDUAN? NOLA?

Zerotik hasi ginen. Etxe bat bukatu genuen arte hiru urte pasa ziren, bitartean kanpain-denda batean bizi ginen. Guztia elkarrekin egiten genuen, egin beharreko lanak. Eta dirua guztiona zen.

• HANDIK ZUZENEAN HONA ETORRI ZINEN?

Bai, ardiekin lan egitea eskaini zidan Berueteke Xabik, Basakaitz gazta zuenak. Orain erdibana eramaten dute Okelak eta Juanbeltzek. Etxea ere utzi zidaten, eta bizitzeko prestatu nuen. Ardiei buruz ez nekien ezer, hemen ikasi nuen guztia, baina lan polita da, mendian ardiekin... ia hiru urte eman nituen.

• EUSKARA IKASI AL DUZU?

IKA-an ikasten ari naiz, Leitzako neska bat etortzen da udaletxera gu irakastera. Taldetxo bat gaude, 5 neska eta ni mutil bakarra. Gustura noa.

• 12 URTE DARAMAZU, HEMEN GERATZEKO ASMOA AL DUZU?

Nik ez dakit zer pasako den, agian munduak esaten du potrotaraino dagoela eta fuera, mundua bukatzen da. Nikez dut etorkizunean pentsatzen, gaurkoan bizi naiz ni. Ezin dizut esan hemen geratuko naizenik. Hori bai, noizbait alde egiten badut norbaiti utziko diot Pulunpe banatzeko ardura, lasai.

• ESKERRAK! LASAIAGO GERATZEN NAIZ! (BARREAK)



▲ Begitxu Hernandez Poblete Etxalekuko Artzaietxean hartu gintuen



Mintzakideak

Bidelagunen eskutik, eskualdean zabalduz.

la hamarkada bat egin du Mintzakideak programak Ultzaman eta Basaburuan. Euskaraz bizitzeko aukerak sortzea, harreman sareak euskalduntzea eta euskararen presentzia areagotzea du helburu. Imotzen sortuko da talde berri bat orain, eta badago aukera eskualdeko beste bailaretara ere zabaltzeko: ordutegia adostu, eta taldea lagunduko duen bidelagun bat bilatzea besterik ez da behar. Arantxa Arantxa Puignau, Ultzamako bidelagunarekin; Mikel Loinaz, Basaburukobidelagunarekin; eta Imotzen sortuko den taldean bidelaguna izanen den Xabier Iturriotz, Zaparekin izan gara

• ZER DA MINTZAKIDEAK PROGRAMA?

Mikel Oltza: Euskaraz hitz egiteko aukera emateko programa da, euskara praktikatzeko taldeak sortuz. Euskararen bidea egiten ari direnei, praktikatu beharra dutenei eta euskaraz bizitzeko aukerak baliatu nahi dituztenei zuzendua dago. Helburua gure harreman sareak euskalduntzea, euskaraz bizitzeko aukerak izatea eta gure eskualdean euskararen presentzia areagotzea dira.

• GAINERA, MODU INFORMAL BATEAN EGITEN DENA, EZTA?

Mikel Loinaz: Bai, hala da, lagunen artean. Solasaldia da, hitz egitea da kontua, ez klasea.

Arantxa: Hain zuzen ere, ez da klasea. Bidelagun-ok ez goaz ezer irakastera. Hitz egitean, solasean datza, besterik gabe. "Ez, ez da horrela esaten!", horrelakorik esatea debekatua dago.

• HAMARKADA BAT ULTZAMAN ETA BASABURUAN, ETA ORAIN IMOTZEN TALDETOKO BAT SORTZEKO ASMOA DUZUE, EZ AL DA HORRELA?

Mikel O.: Zapa bidelagunai berria dugu bai, Imotzen beste talde bat sortzeko asmoz. Geltokia berriz irekitzearekin batean.

Xabier Iturriotz, Zapa: Gustukoa dut, hemen, Basaburuan, ikusi izan ditut Mikel eta kuadrilla hori, Imotzik ere norbait etortzen da Jauntsaratsa, eta noizbait ere haiekin geratu naiz, topo egin dudanean. Kontu-kontari egoteko, euskaraz hitz egiteko, erraztasuna hartzeko...

• Zertaz hitz egiten duzue, gaia prestatua eramaten duzue edo inprobisatzen duzue?

Mikel L.: Gaurkotasunaren arabera..., prestatu, ez dugu prestatzen, ez.

“

Arantxa:
“asteazkenero
mintzapraktikan
ikusten zaituen
jendeak zuzenean
euskaraz egiten
dizu”

”

Taldeak zertaz hitz egin nahi duen ikusten dugu. Gu, honezkero, 4 urtez ari gara segidan; beraz, elkarren lagunak gara. Badakigu bata eta besteak zer duten gustuko, kuadrilla arrunt baten moduan ibiltzen gara.



Mintzakideen proiektua aurkeztu ziguen Esan Erran irratian



“**Mikel I.:
“guk, honezkero,
4 urtez
daramatzagu
jarraian, beraz,
lagunak gara.
kuadrilla arrunt
baten moduan
ibiltzen gara”.**”

- Basaburua, Ultzama, hemendik gutxira Imotz..., ba al dago talderik gainontzeko bailaretan?

Mikel O.: Momentuz ez. Badira izena eman duten mintzakide-ak, eta orain saiatuko gara taldeak sortzen, Ultzaman, adibidez, Auzan ere animatu baitira.

- Norbaitek izena emateko asmoa badu edo bere burua bidelagun gisa ikusten badu, nola egin dezake?

Mikel O.: Hainbat bide dira: telefono bidez, gurekin kontaktuan jarri; udaletxeetan fitxa batzuk betez : Ultzaman, Imotzen, Basaburuan eta Odietan aurkitu daitezke, bertan nahiago den ordutegia jarri behar da, horren arabera mintzakide talde berriak sortzeko. Gero, hala ere, taldeak nahiko autonomoak dira: haiek bilatzen dituzte mintzakide berriak, ahoz aho.

Mikel L.: Jendeak tabernan ikusten zaitu, eta galdetzen dizu, zertan ari zarete? -Bada, mintzakide-ak gara-eta zer da hori? -Hara, ba, agian etorriko naiz ni ere...

Arantxa: Egia da asteazkeneko taldean mintzapraktikan ikusten zaituen jendeak zuzenean euskaraz egiten dizula.

- Tabernan eragile bihurtzen zaretela esan daiteke, beraz? Ingurukoak ere hasten dira euskaraz?

Arantxa: Nik uste dut baietz.

- Zapa, Imotzen, orduan, sortu da talde bat jada?

Oraindik ez, baina badira Basaburura etortzen diren batzuk, eta nik uste animatuko diren beste batzuk ere badirela. Gauza baterako baino gehiagotarako balio du: bailarakoak bailaran elkartzeko, eta hori ez dago gaizki; euskaraz hitz egiteko, primeran; eta horrela bailara egiten duzu.

Arantxa: Nik aipatu nahi nuen, gainera, lehenengo egunean mintzakide batek esan zidana. Badaramatza urteak eta urteak ikasten, eta kristoren nahaspila zuen. Bada, mintzakide hasi zenetik, dena bere tokian jartzen hasi zitzaiola eta egitura ulertzen zuela esan zidan. Niri hori oso garrantzitsua iruditzen zait.

- Bada, animatuko dugu jendea izena ematera eta talde berriak sortzera...

Mikel L.: Hitz egiteko beldurra duten haiei nik esan nahi nien hitz egiteko hitz egitea besterik ez dagoela; gaizki hitz egiten hasi behar da, eta gero joanen gara hobeki hitz egiten ikasten.

Arantxa: Hori da gertatzen dena, ikasi duen edo ikasten ari den jende asko dago, baina salto hori ematea

“**Zapa:
“Gauza bat baino
gehiagotarako
balio du:
bailarakoak
bailaran
elkartzeko,
euskaraz hitz
egiteko eta,
horrela, bailara
egiteko”**”

falta zaie, erabiltzeko. Jende asko dago euskaraz ikasten hasi zena, edo euskaraz hitz egiten zuena, eta orain hitz egiten ez duena... Horiek ere animatuko nituzke, jende hori guzia ere beharrezkoa baita gure eskualdea pixka bat gehiago euskalduntzeko.

Zapa: Nik gaineratuko nuke, gainera, euskaldun berriak esfortzu bat egiten duela hitz egiteko, eta euskaldun zaharrei ere nik esfortzu bat eskatuko nieke. Hau da, askotan errazena erdarara jotzea da, bai batarentzat, bai bestearentzat. Esfortzua konpartitua da. Gu ere, parekoa gaizki pasatzen ari dela ikusten dugunean, adibidez, erdarara pasatzen gara...

BASABURUKO TALDEA:

Asteazkenetan

Apeztegi berrin, Jauntsaratsen

17:30ean

ULTZAMAKO TALDEA:

Asteazkenetan

Iraizozko Ostatuan

18:30ean



Artantxuriketan, Aranoko ama-alabekin

Oroitzapen goxoak ekarriko dizkie segur aski irakurle askori artazuriketak: familia osoak eta askotan inguruko auzokideak ere elkartu eta ganbaran egiten zuten lana izaten zen, kantuz eta jolasez lagunduta egiten zena sarritan. "Garai hartan ez genuen irratirik, ez telebistarik, ezta jostailurik ere... orduan, zer egiten genuen? Bada, ahal zen heinean kankak-eta egiten genituen!", kontatzen zion Maixux Zugarramurdik Onintza Enbeitari euskal telebistan egin zieten erreportajeaz.

Artazuritzea oinarri hartuta osatu zuten ikuskizuna Aranako Ansa Ahizpek eta Maixux Zugarramurdi haien amak. Etxeko ganbaran artazuritzeko elkartu eta kontuan eta kantuan pasatuko dute ikuskizunak irauten duen ordua, garai batean artazuritzea izaten zena irudikatuz. Arantxa, Ainhoa eta Maider ahizpek urteak daramatzate musikaren munduan gehiago-gutxiago sartuta,

baina amarentzat esperientzia berria izan da oholtza gainera igotzearena.

Ahozko transmisioaren garrantzia

Kultura oso baten transmisioan berebiziko garrantzia izan du Euskal Herrian ahozketasunak: baserrietan, etxeko sukaldean edo ganbaran, belaunaldi batetik hurrengora pasatu dira kontatu eta kantatutako istorioak. Ahozko transmisioan, gainera, baserriko emakumearen papera garrantzitsua izan da oso: ametatik alabetara pasatu dira askotan kantu eta istorio horiek, gaur arte iritsi direnak.

Baserriko bizitzaren galerarekin, ordea, galtzeko arriskuan daude gudanaino iritsi diren kantu eta kontu horiek, eta horri buelta eman nahian, modu goxo eta erraz batean egiten dute transmisio lan hori Ansa Ahizpek eta amak euren ikuskizunean. Amonari eta amari ikasitako abestiak kantatzen dituzte.



Artoa zintzilik ▲

Leitzaldeko, Aranoko, Goiztueta eta Oartzungo kontakizun eta abestiek osatzen dute Artantxuriketan ikuskizuna, hangoak baitziren familiaren aurreko belaunaldiak eta haiengandik jasoak dituzte istorioak. Ikuskizunaren izenari dagokionez, berriz, Artantxuriketan izena eduki behar zuen hasiera batean, baina Maixux Zugarramurdi txikitik Goiztueta Artantxu baserrian bizitakoa izanik, hitz-jokoa egin eta Artantxuriketan izendatzea erabaki zuten.



Ezk-esk: Itziar Pérez; Xabier Iturriotz 'Zapa', Mikel Loinaz, Arantxa Puignau eta Mikel Oltza. ▲

**Abenduaren 27an
Larraitartzarko
Bentan egingen dute
Artantxuriketan
ikuskizuna, arratsaldeko
19:00etan, Ametza Kultur
Elkartek antolatuta. Ez
ezazue galdu!**



Imotz eta Irurtzun batzen duen Kaxarna pasabidea inauguratu dute

Eurovelo bizikleta bidearen obrak ere osatzen jarraitzen dute, horregatik hilabetero eguneratu behar dugu informazioa. Oraingoan, Imotz eta Irurtzun batzen duen eta Larraun ibaia zeharkatzen duen Kaxarna pasabidea inauguratu dute.

Manu Ayerdi garapen ekonomikoko Nafarroako Gobernuako kontseilaria eta Maitena Ezkutari turismo kontseilaria izan ziren pasabidearen irekieran. Luzera 32,50 metro ditu eta 2,5 metro zabalera.

Jauntsaratsen ere, Pasaderetan, erreka gainetik pasatzen den pasabidea jarri dute, oraindik itxita dihardun arren. Kaxarnaren antzekoa den zubi hau Erbiti eta Ihaben batuko duen lanen barnean da, Basaburuko Pasaderetan atsedenerako gune bat eginen baitute.

Eurovelo Europa osoa zeharkatu eta Portugalera iritsiko den bizikleta bidea da. Iberiar Penintsulan Nafarroatik sartzen da, Doneztebetik gure eskualdean sartzen da Plazaolako bidetik.



▲ Kaxarna pasarela

Kontzejuetako hauteskundearen errepikapeneko emaitzak

Azaroaren 17an izan zen Kontzejuetako hauteskundearen errepikapena eskualdean. Apirilaren bukaeran egin ziren hauteskundeak, baina hautagaitzarik aurkeztu ez zen Kontzejuetan errepikatu egin dituzte azaroan. Eskualdean, ondorengo herrietan egon ziren bozkaketak, eta hauek izan ziren emaitzak:

ANUE

Aritzu

Juantxo Erbiti Mitxeltoarena izanen da Kontzeju Irekiko presidente, 15 bozkekin.

Etsain

Maximo Santesteban Cizur izanen da Kontzeju Irekiko presidente, 15 bozkekin.



▲ Eskualdeko zazpi kontzejutan errepikatu dituzte hauteskundeak

ULTZAMA

Alkotz

Antonio José Iraizoz Apezteguia izanen da Kontzejuko presidente 48 bozkekin, eta Cristina Balda Tornaria, Iosu Goñi Echeverría, Miren Latasa Barberena eta Jose Maria Itoiz Goñi bokalak.

Auza

Jose Ramon Berasain Berasain izanen da Kontzejuko presidente 24 bozkekin, eta Tomas Javier Goñi Baleztena, Jesus Maria Goienaga Tornaria, Macario Ciganda Tornaria eta Jose Ignacio Goñi Aldaz bokalak.

Eltzaburu

Lourdes Aranguren Barberia izanen da Kontzejuko presidente 14 bozkekin, eta Roberto Soto Valle, Ana Isabel Mindegia Ilaregi, Antonio Maria Echeverria Echenique eta Laura Herranz Oiz bokalak.

Gorrontz-Olano

Unai Martinez Icaya izanen da Kontzejuko presidente 29 bozkekin, eta Miguel Garcia Arza, Iker Isasi Aleman, Mirian Sapuppo Galain eta Leire Echeverria San Pedro bokalak.

Lizaso

Edurne Lizarraga Oroquieta izanen da Kontzejuko presidente 31 bozkekin, eta Carlos Maria Amatriain Macaya, Ana Armendariz Hugalde, Daniel Rezusta Olmos eta David Girones Ramirez bokalak.



Bi domina irabazi ditu Juanbeltz gaztak Bergamoko World Cheese Awards lehiaketan

Berueteko familia gaztagileak sari bikoitza jaso du Bergamon (Italia) antolatu duten gazta lehiaketan: zilarrezko domina eraman dute Idiazabal gazten kategorian, eta brontzezkoa, berriz, ardi gazta ketuenean.

Mundu mailako gazta lehiaketa garrantzitsuenetakoa da World Cheese Awardsa. Aurtengoa lehiaketaren 32. edizioa izan da, eta 3.804 gaztak hartu dute parte. Guztira, mundu osoko 42 herrialdetako gaztagileak egon dira bertan, tartean gure eskualdeko Juanbeltz gaztagileak. Emaiza bikaina lortu dute, gainera.

Lehenago ere irabazi dituzte lehiaketak gaztagile berueteurrek: 2011n Birminghamen egin zen lehiaketan brontzezko domina irabazi zuten; 2012 eta 2013an toki berean urrea lortu zuten; brontzezko domina berriz ere 2017-18an Londresko World Cheese Awardsen; eta azkenik, lehen saria eraman zuten Uharte Arakilgo XVII. Gazta Lehiaketan.

Zorionak, bada, Berueteko familia gaztagileari, eta jarrai dezatela orain arte bezain txukun lanean!

Hiztegia

Domina: Medalla


Zilar: Plata

Gazta ketua: queso ahumado



Berueteko Juanbeltz Idiazabal gazta ▲

BOZ KA



joxejabierrena

NAZKA



Abendura arte luzatu da aurten Azaroaren 25aren harira antolatutako egitarau zabala

Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan da. Egitarau zabala antolatu dute Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak eta eskualdeko talde feministek. Dokumental emanaldi ugari izan dira, bereziki. Haien artean emakume migratuen eta kartzelen egoera agertzen duen *Motxila Ikusezina*, Basaburuan; *Volar* dokumentalaren emanaldia Ultzaman; edo *Baztertuak*, *jarraituak*, *gartzelaratuak*, El Salvadorreko abortuaren kriminalizazio absolutuaren eraginari buruzkoa. Protagonistak berak izan dira, gainera, publikoarekin **solasean** emanaldi horietan. Filmak bakarrik ez, antzerkia ere izan da egitarau zabal honetan: *Bakean dagoena bakean utzi*, Basaburuan, adibidez, eta Odietan, *Guerbera borrokalaria*, abenduaren 6an.

Bai, abendura arte luzatu da aurten Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunaren inguruan osatutako programa. Abenduaren 13an Ruth Iturbide Rodrigok *Zure burua bipolarizat duzunean*, *bipolarra sistema bada ere* saioa egingen du, Izarpe Kanpinean. Basaburuko Bilgune Feminista da antolatzailea, eta aurrez izena eman beharko dute interesa dutenek: 683628810 Whatsapp zenbakira edo basaburuabfeminista@gmail.com helbidera idatziz.

Hiztegia

Solasean: hizketan

Egitura:

Bada ere:

- Bipolarra sistema **bada ere**... cuando es el sistema el que es bipolar.
- Ni joanen naiz zu ez **bazoaz ere**: yo sí que iré aunque tu no vayas.
- Zuk horrela uste **baduzu ere**, ez naiz tuntu: aunque así lo creas, no soy tonto.



▲ Basaburuko Bilgune Feministak deitutako kontzentrazioa, azaroaren 8an, Baionan senarrak emakume bat erail ondoren

Katalogoa

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA 2019-2020

JOSTAILU ETA JOKOAK
MUSIKA
DVD FILMAK
APP-AR
ALDIZKARIAK
KOMIKIAK
LIBURUAK
GURASOENTZAKO MATERIALA

0-16 urte

EUSKARA DA GURE ALTXORRIK HANDIENA!!

WWW.KATALOGOA.EUS



iritzia

euskal herriko
bilgune feminista

Nahia Torrealдай Mandaluniz,
Euskal Herriko Bilgune Feminista

GARArA egunkarian

Ez zaituztegu behar aske izateko!

2019ko azaroaren 25ean

Aske izateko prebentzioa! Jendarte feminista eraikitzeke ezinbestekoa da hezkuntzan eta profesionalen formakuntzan inbertitzea. Horrela, indarkeria matxistaren erreproduktzio eta legitimazio mekanismoak deuseztatuko ditugu, guztion artean!

Aske izateko diskurtso hutsalak soberan! Soberan ditugu neurri integralik eta aurrekontu partida nahikorik gabeko puntu more, isiltasun minutu, gezur eta argazkiak. Ez dugu garbiketa morerik nahi!

Aske izateko baliabideak! Indarkeria jasa(te)n dugu emakumeok* eskura behar dugu asistentzia sozial, psikologiko eta legala erreparazioarako eta bizitza duinari eusteko; salaketa judiziala ezarri ala ez.

Aske izateko espetxerik ez! Ez doa arazoaren muinera zigorrak gogortzen dituen sistema judiziala. Behin eta berriro ikusi dugu kartzela ez dela birgaitzeko eta birjendarteratzeko tresna, arazoak konpondu baino areagotu egiten dituela.

Askeizateko justizia feminista! Beharrezkoa da justizia eredu birpentsatzea, fokua erasotuen erreparazioan eta babesean jartzea. Horretarako, funtsezkoak dira emakumeon* sinesgarritasuna, testigantzen balioa eta jazotakoaren aitortza. Prozesuaren erdigunean erasotakoa jartzea.

Aske izateko ardurak haien gain hartzen dituzten gizonak! Erasotzeari uzten dioten gizonak behar ditugu, konplizitate sare patriarkalekin apurtu eta indarkeria matxistan duten erantzukizunaz kargutzen direnak, ingurune hurbilean aldatetak eraginez.

Aske izateko komunitate antolatua! Haien baitako gatazkak kudeatzen dituzten eta minak kolektiboki osatzen inplikatzeko direnak. Hauen baitan antolatzen jarraituko dugu feministok, denak aske izan arte!

Aske izateko dugu armarik zorrotzena emakumeon* artean elkar babesteko sareak dira! Ekin autodefentsa feministari!

Istripu larria N-121-A errepidean, Ostitz

Baztango bi emakume hil ziren N-121-A errepidean, Ostitz ondoan. Ezbeharra azaroaren 22an gertatu zen. Aurrez aurre jo zuten bi autok, eta ondorioz, bi emakume, 78 eta 51 urteko ama eta alaba hil ziren. Beste autoan zihoazen 3 pertsonak zauritu eta Nafarroako ospitalera eraman zituzten. Arratsaldeko 18etan izan zen istripua, eta errepidea moztu egin zuten. Foruzaingoa, hainbat anbulantzia eta suhiltzaileak gerturatu ziren. Hauek lanean ziharduten bitartean, errepidea moztu eta NA-8109 errepidetik desbideratu zuten trafikoa.

N-121-A errepidean izaten den bigarren istripu larria da aurtan, irailean Bilboko emakume bat hil baitzen Arraizko bentetatik gertu. Bizilagunek behin baino gehiagotan eskatu dituzte arriskuak arinduko lituzketen neurriak.

Auto istripua, Atetzen

Hasieran istripu larria bazirudien ere, ez zen zauritu larririk izan, zorionez. Ezbeharra NA-4100 errepidean gertatu zen, Aroztegiko zubian.

Foruzaingoaren oharrak dioenez, alkoholemia proban positibo emateagatik Berrioplanoko 45 urteko gizon bat ikertzen ari dira, segurtasunaren aurkako delitu batengatik.

Aroztegiko zubian izan zen ezbeharra. Autoa bidetik atera, eta ia erre kara erori zen. Zorionez bide bazterrean gelditu zen autoa, eta gidaria ez zen zauritu.



▲ Foruzaingoa bidalitako ezbeharren argazkia



Erabilera anitzeko plaza egiteko lanak hasi dituzte Urritzola-Galainen

Ultzamako Udala eta Urritzola-Galaingo kontzejua erabilera anitzeko plaza bat eraikitzen ari dira. Dagokion kontratazio prozesua egin ondoren, obra hori egiteaz arduratuko den enpresa A. Bengoetxea SL da 71.280,94 euroko aurrekontuarekin (gehi dagokion BEZa, %21).

Obrak urriaren amaieran hasi zituzten eta abenduaren 31ra arte dute bukatzeko. "Obra honen helburua Ultzama bailarako azpiegiturak eta harreman soziokulturalak hobetzea da, Urritzola-Galain herriari aisialdirako gune sozial eta kultural bat emanez, erabilera askotarako plaza bat eraikiz, bertan herri horretako biztanleek era guztietako jarduerara sozio-ludikoak eta kirol jarduerak egin ditzaten, bai eta udalerrian edo zonaldean egin daitezkeen ekitaldiak ere", azaltzen du Ultzamako Udalak bidalitako prentsa oharrak.

Proiektu hau Cederna Garalur 2014-2020 Toki Garapen Parte-hartzaileako Estrategiaren bidez finantzatzen da, Nafarroako Mendialdeko zerbitzu publikoak hobetzeko (LGP 2014-2020), eta Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak batera finantzatzen dute, LGENF Landa Garapenerako Funtzen bidez.



▲ Urritzola Galaingo obrak



▲ Urritzola Galaingo obrak

Etsainen ere bai, obrak

Kaleak konpontzen eta hoditeria aldatzen ari dira Etsainen. 6 hilabete iraungo dute hasi berri dituzten lanek, apirilera arte baitute epea. Sasoi Eraikuntzak S.L. Sunbillako enpresak du obra honen ardura, Iñaki Iraizoz bertako bizilagunak esan digunez. Goitiko auzotik hasi eta behera joko dute lanak bukatu arte.



▲ Etsaingo obrak



Elikadura burujabetza eta lehen sektorearen aldeko lanketa abiatu da eskualdean

Eskualdeko Udalek Cederna Garalur Garapen Agentziarekin elkarlanean abiatu dute elikadura burujabetza lantzen hasteko eta lehen sektorea bultzatzeko proiektua. Nafarroako beste zenbait eskualdetan honezkero abian diren proiektuak dituzte eredutzat, hala nola, Leitzaldean edota Araitz-Betelun bertako Udalek eman dituztenak. Oraingoz, proiektuaren lehen fasean daude, lehen sektorearen egoeraren inguruko diagnostikoa osatzen.

Basaburuko Udalak, esaterako, lehen sektorearen egoeraren inguruko informazioa jasotzeko parte hartze prozesua abiatu

du azaroan, eta herritarrei udalaren webgunean aurki zitekeen inkesta betetzeko eskatu zioten. Hurrengo hilabeteetan joanen dira pauso gehiago ematen. Proiektuaren helburuen artean daude bertako produktuak bultzatzea, bestelako

kontsumo eta ekoizpen ereduak sustatzea, eraldaketa prozesuari indarra ematea, zuzeneko eta zirkuitu motzeko salmenta lehenestea, eta ekoizleen artean, eskualde mailan nahiz beste sektoreekin elkarlana eta saretzea bultzatzea.



Beste gauzen artean, bertako produktuen kontsumoa bultzatzea du helburu proiektuak

Liburu berria argitaratu du Joana Ziganda oskozarrak

Hiru urtetik gorako haurrendako liburua argitaratu berri dute Joana Zigandak eta Iker Uribek. Xaxardi izena jarri diote ilustrazioz lagundutako ipuin liburuari, eta Durangoko Liburu eta Disko azokan salgai izanen dute, autoekoizleen plazan. Gainera, ipuin kontaketa ere egingen dute abenduaren 5ean Sagu Ganbaran, arratsaldeko 18:00etan.

Honela dio ipuin liburuaren sinopsiak: "Artaldeak, taldearen indarrak, askotan besteen norabidean eraman gaitzake gure ideia eta desioak alde batera utzita. Zaila da batzuetan taldearen usteei

aurre eginez nork bere bidea egitea. Halaxe egiten du Xaxardik, gure protagonistak, sasi-ardi kritiko, bakar eta bereziak. Nork bere uste eta iritzia izatearen indarra

nabarmentzen da ipuinean, ekintza, arrisku eta ustekabez betetako istorio bihurri eta dibertigarrian. Beti buru argi! Hau da Xaxardiren sekretua".



Xaxardi izeneko liburua atera dute Joana Zigandak eta Iker Uribek



Auzolanean aritu ziren Abaunzko Kobazuloan: M^a Yolanda Mutiloaren kronika

Urriaren 26an, larunbatean, goizeko 08:30ean Arraitzen ez zegoen lainorik. Zeruak egun oskarbia iragartzen zuen.

Nahiz eta goiz izan, Abauntz kobazuloaren inguruan hainbat ahots entzuten ziren, alaiak eta emozioz beterik. Hainbat lagun hor zeuden, lanabesak eskuan, zikintzeko arropaz jantzita... auzolana egiteko prest!

Kobazulora igotzeko mailak egiten zituzten bitartean, bi arkeologo

Abauntzeko mapa eta kobazuloari buruz zer kontatuko zieten han bilduko zirenei prestatzen ari ziren.

10:00etan familia batzuk Arraitzen elkartu eta harantz abiatu ginen oinez. Bidean ikusitako zabor guztia bildu eta berehala ailegatu ginen.

Plana ezin hobea zen: zuhaitzak landatzea, murla egitea, kobazuloa bisitatzea, hamarretakoa hartzea... egurrezko eskultura bat nola egiten zen hor bertan ikustea!!

Eguzkiak zonaldea epeltzen hasi zuen, haurrak poz-pozik zuloak egiten, margotzen eta ikasten ibiltzen ziren, helduok... ze gustura geunden!! Eta hondoko hotsa Mikelen motozerra.

Bi Jesusek, arkeologoen, kobazuloaren historia kontatzen zuten heinean, Mikelek lamien istorioekin uztartzen zuen. Zoragarria!

Eskerrik asko Sustraiak hezkuntza proiektua* sortu, gauzatu, bultzatu eta bizitza ematen diozuen guztiei!!

* Proiektuan parte hartzen dute Larraintzako ikastetxeko guraso elkarteak, Sustraiak; zentroko irakasle eta ikasleek, batez ere LHko 5. eta 6. mailakoek, zonaldeko udalek eta Nafarroako Gobernuak (Ingurumen Heziketarako eta Ingurumen Boluntariotzarako dirulaguntzen deialdia).



M^a Yolanda Mutiloa Oria



▲ Mikel Lasartek han bertan egin zuen lamia



▲ Jesus Garciak eta Jesus Sesmak kobazuloaren sekretuak kontatu zizkiguten



▲ Dena bukatuta

Eskulangileen

Bezperatik euria leher bota zuen. Joan den 130 urtean izan den azarorik euritsuena izan omen da. Eta elurra ere ez da falta izan arbolak oraindik hostoz beteak zeudenean. Hortaz hariztietan hainbesteko saltsa ikusi. Esan bezala, euria bezperatik, baina abenduaren lehena ateri argitu zuen, nahiz goibel xamar izan. Eta hotzik ere ez zen izan. Beharrik!

Goizeko bederatzia eta erdietan antolatzaileak pilotalekuan gauzak atontzera joanak, eta ordu berean, Aroztegiko Pello Kañamates, izugarritzko "eskulanak" ekarri baitzituen, furgoneta bete-betea zurezko irudiz. Eskulanak edo zerralanak?

Eta hamarretarako zintzo azaldu ziren izena emandako eskulangile gehientsuenak. Hiruk, azken orduko eragozpenen bat zela eta, ezinezkoa adierazi ziguten. Eta, bestalde, izena eman ez zuten beste bi era bertaratu ziren. Beraz, denetara 19 postu jarri ziren: eskulanak eta jangaia (comestibles)

Neguko igande baterako goixko jarri genuen hitzordua eta jendea beranduxeago agertu zen. Dena dela, gelditugabe, goiz guzian, jende anitz pasatu zen Larraintzartik. Eta aski kontent atera ere bai. Batzuk erositakoarekin eta beste batzuk ikusitakoarekin, kontent etxera edo hurbileko ostaturen batera bazkaltzera.

Gure alderdiko eskulangileak erakusketa arrunt polita egin zuten. Izan joskin, izan zur zizelkari, bastoi egile, koxta saltzaile... zapatagile, pilota egile... sortzaile

franko ikusi genuen bertan. Lan politak, lan ederrak, batzuk meritu handikoak, ikusi genituenak.

Eta janari edo edari saltzaile ere bai, sagardogile, gaztagile... gauza franko, gauza franko, uste baino gehiago.

Denak ere kontent geldituko zirelako kontua zuten. Hori da behintzat guk sumatu genuena.

Eta "ostatuan" ere konforme ziren, ekarri gehienexkoa saldu omen zuten eta. Bai, bai, ostatu ttiki bat jarri ziguten Ultzamako eskolako



Angel Beuntza, Nafarroako historia errotik maite duena. Eta eskulangile aspaldikoa, zur zizelkari bikaina. Ametza Kultur Elkartek, bere bizitza guzian eskulangintzan egin duen lanagatik oroigarri bat eskaini zion igandean. Momentu hunkigarria.



Berueteko sagardogilea, Ignacio Soralue, bere sal-lekuan

Hiru gizon puska, solasean patxada ederrean ▼



ikasle zaharrenek, nahi zuenak otamena hartu eta baso erdi bat ardo edateko. Sos batzuk aterako ahal zituzten pentsatua duten ikasbidaiarako! Bidaia ona izan eta ibili zintzo!

Eta gu, Ametzakook ere ez dugu kexatzekorik, gure mahaitxora hurbildu zen jendeari gure berri eman genion eta irratiazen promoziorako poltsaren bat saldu ere bai. Bestalde, gure bazkide eta adiskideekin egoteko egun bikaina izan zen.

Goiz eder bat pasa genuen, aspaldi ikusten ez genuen jendea agurtu eta honetaz eta hartaz ihardukitzeko parada bikaina, beharbada motzegi izan zen, bazkal garaia gainera etorri zitzaigun eta.

Ametzaren partez, denei eskerrak eman beharrean gaude. Ea bada, datorren urtean gehiago eta hobeki! Eta aupa zuek!



Txurdan



Patxi Oskotz

Oharra: Fotografia gehiago amezti. eus interneteko orrian.



▲ Xabier Iturriotz,
Erasoko zapatari profesionala





Ixiar Braco,

“Barrikadak, arpilatzeak, tiroketak eta horrelakoak ikusi genituen. Ez genuen espero”

Egun batetik bestera albisteek Txiletik Boliviara eraman gaituzte. Baina Txilen aldaketa sozialerako protestek jarraitu dute azken asteetan. Bertatik iritsi zaizkigun irudiak eta datuak harrigarriak izan dira: militarrek kalean ikusi ditugu, 20 pertsona inguru hil dituzte eta 2.000 lagun zauritu, krisia lehertu zenetik hilabetera, eta, hala ere, herritarrek kale horiek bete egin dituzte. Gertaerek Txilen harrapatu dute Ixiar Braco ultzamarra, irakasle ikasketak egiten ari den lizasoar hau 6 hilabeteko ikasketa egonaldia egiten ari baita bertan, eta berak han gertatua nola bizi izan duen jakiteko telefonoz solastu gara Ixiarrekin.

• HONA IRISTEN DENAREN ARABERA, BADIRUDI TXILEN EZ DELAEZERGERTATZENARI ORAIN, BAINA PROTESTEK JARRAITZEN DUTE, EZTA, IXIAR?

Manifestazioen lehenengo astea oso-oso mugitua eta nahiko latza izan zen. Bigarrenean, manifestazioak lasaitu egin ziren. Eta orain hirugarren astean sartu gara, eta jarraitzen dute. Atzo, adibidez, greba orokorra izan zen, eta lehenengo protesten antzekoa izan zen.

• HALA ERE, OROKORREAN, LASAIAGO ZAUDETE?

Bai, lehenengo astean Piñera presidenteak larrialdi egoera ezarri zuen, eta horren ondorioz, militarrek kalera atera zituen, etxeratze-aginduak izaten genituen egunero, eta estatuaren errepresioa handiagoa zen. Horrek ez du esan nahi orain ezer gertatzen ez denik. Atzo tiroketak, suteak eta barrikadak ikusi genituen greba orokorrean..., baina egoera ez da hasieran bezain larria.

• GOBERNUAK KONSTITUZIO BERRI BAT IZATEKO PROZESUA MARTXAN JARRIKO DUELA ESAN ZUEN. HORI HALA DA?

Nik dakidanez, lehenengo astean aldaketarako agenda sozial bat egin zuten, eta hor zenbait gai ukitu zituzten, baina azalean bakarrik. Orduan, hemengo gizartea ez dago konforme aldaketa horiekin eta arazoaren muinera joan nahi dute, konstituzio aldaketa baten bidez. Ez dakit eginen duten edo ez.

• KRISIA LEHERTU ZENEAN, ZU NON ZINEN ETA NOLA BIZI IZAN ZENUEN?

Ni Valparaision naiz, eta protestak Santiagon hasi ziren. Ikasle batzuek protesta egin zuten Santiagoko metroan, haren garestitzearen aurka, eta hurrengo egunean Valparaision ere manifestazioa egiteko deialdia egin zuten. Gu kalera atera ginen, lagun batzuekin -hemen ditudan lagun gehienak euskaldunak dira -. Manifestazioan



Ixiar Braco (ezkerrean) Valparaिसora iritsi berria. Ahizpa Maddi Argentinan zen, bere ikasketa-egonaldia amaitzen, eta bisitan joan zitzaion.



elkarriketa entzuteko

“

**Herritarrek
kamiolariekin
hitz egin zuten,
hornigaiak
lortzeko.
Zaurituak
sendatzeko ere
antolatu dira.
Antolakuntza
izugarria dago
auzoetan**

”

Txiletarrek badute antolatzeko kristoren gaitasuna. Minutu batetik bestera manifestazio bat hasi daiteke, eta jendea berehala antolatzen da barrikada bategiteko: hau ireki, arpilatu eta gauzei su emateko, alegia. Ez da oso, ez dakit nola esan..., ez gaude ohituta, aho bete hortz geratzen ginen gu. Denbora batean supermerkatuak eta dendak itxiak egon ziren, ilarak egin behar ziren bertan sartzeko, hamarnaka bakarrik uzten ziguten sartzen erosketak egitera. Bestalde, herritarrek kamiolariekin hitz egin zuten, hornigaiak iritsiko ziren jakiteko, eta hornitzeko modua bilatu zuten. Antolakuntza izugarria dago auzoetan. Manifestazioetan zaurituak egon direnean ere haiek sendatzeko antolatu egin dira, zaurituei balinak ateratzeko, begian min zutenak sendatzeko...

parte hartzeko atera ginen, eta, egia esan, ez genekien oso ongi nolakoa izan zen manifestazio hura, uste dut baketsuagoa izan zen zelakoan geundela. Barrikadak, arpilatzeak, tiroketak eta horrelakoak ikusi genituen, ordea. Ez genuen espero, eta gau horretan bertan ezarri zuten etxeratze-agindua. Hortik aurrera 0tik 1.000rako saltoa eman zuen guztiak. Bestalde, ez genekien unibertsitatean zer gertatuko zen, seihilekoa bukatuko genuen edo ez, ikasgaiak baliozkotuko zizkiguten edo ez..., gainera, etxean hainbeste denbora ematen genuenez, nahiko larri ginen. Horregatik, astebetean Argentinara joan ginen. Orain, esaten dizudan bezala, lasaigo dago giroa, eta unibertsitatetik konponbideak eskaintzen ari dira ikasturtea bukatzeko.



• ITZULTZEKOTAN ERE IBILI ZARA, EZTA? IKASTURTEA GALTZEKOTAN ZEUNDETEN...

Bai, hasieran, hemen esan zigutenez, ez zekiten ikasturtea bukatzeko aukera izan zen genuen, eta gure jatorrizko unibertsitateekin hitz egin behar genuen. Baina guk ez genuen itzuli nahi, eta etxetik lan egin behar bagenuen ere, hemen jarraitu nahi genuen bukatu arte.

• IRITSI ZINENEAN, GREBAN ZEUDEN IKASLEAK, NABARITZEN ZEN ORDUTIK HASERRE GIROA?

Uztailaren 18an iritsi ginen Valparaísora, eta uztailaren 29an hasi behar genuen, baina gure unibertsitatean greba egin zuten ikasleek, eta irailaren 9an hasi ginen, ia hilabete eta erdi klaserik gabe eman genuen. Egia esan, kanpotarrak garen aldetik, ez ginen gehiegi konturatu haserreaz. Baina hau guztia gertatu denetik, gu ere hasi gara ikasten bertako egoera. Hemen dagoen aberatsen eta erdi mailako klasearen arteko desberdintasuna oso handia da. Txileko gizarteari eta historiari buruz ikasteko balio izan zaizkigu gertaera hauek. Hemengo albisteak irakurri ditugu, bertako jendearekin asko hitz egin dugu..., beste errealtate bat ezagutu dugu.

• HEMEN IKUSI DITUGUN IRUDIAK HARRIGARRIAK IZAN DIRA OSO, ETA KONTATZEN DUZUNAREN ARABERA, BERTAN BIZITAKOAK IZUGARRIA IZAN DA, EZ DIRA HEMENGO MANIFESTAZIOAK BEZALAKOAK BEHINTZAT...



Gerrako kontuak

Gerra hor dugu laino artean, erdi atzendua, baina ez erabat, gurean, Nafarroan, nahiz frenterik izan ez, errepresio ikaragarria izan baitzen, arrasto handia utzi baitzuen. Gaurkoan, errepresioak familia bat nola jo zuen ikusiko dugu. Ostizko Ostatuan hazitako Jose Luis Elkanok kontatuko digu bere amak sufritutakoa.

• NON JAIO ZINEN? NOR ZIREN ZURE GURASOAK?

Ni ostatuan jaio nintzen –Iruñeko Maternidadean hobeki esan-, baina gurasoak hemen nituen, aita sortzez ostiztarra eta ama, berriz, Artetakoa (Ollo), Jose Elkano Irurita eta Luisa de Carlos Garaikoetxea.

• ET, ET, KONTU HORI ZERBAIT GEHIAGO XEHATU BEHAR DUGU.

Bai, gure aita, 1933an ezkondu zen Urritzolako Martiñenazarreko alaba zen Juana Landiribar Lizeagarekin. Eta neskato bat izan zuten, Maria Rosario (Txaro) Elcano Landiribar. Baina aita laster alargundu zen.

• NOIZ EZKONDU ZEN LUISA DE CARLOSEKIN?

1948ko otsailaren 18an. Gure ama ere alarguna zen eta honek lehen ezkontzatik bazuen neskato bat, Luisa Ramos de Carlos.

Eta urtebete pasatxo berenduago, hain juxtu hurrengo 1949ko ekainaren 15ean jaio nintzen ni.

• NOIZ IKASI ZENUEN ZUEN AMAREN LEHEN SENARRA FUSILATU EGIN ZUTELA ETA ANAIA DESAGERTU. NOLA IZAN ZEN HORI?

Ez dakit noiz, nik zortzi urte nituenean edo. Gauean ostatua hersten genuenean, biok gelditzen ginen eta gure amak Paris eta Andorra irratiak entzuten zituen. Gau horietako batean kontatu zidan bere senarra izandakoaren

heriotza latza eta bere anaiaren kontua. Ez dakit, zergatik entzuten zituen, beharbada bazuen esperantza izpiren bat agertuko zirela eta irrati horietan esanen ote zuten edo. Ez dakit ba.

• ETA ZUEN ETXEAN HITZ EGITEN ZEN GAUZA HAUETAZ?

Ez, kontu hori bazterrean utzia genuen. Hori bai, nolanahi gisa, bazen nahi bat jakiteko non ote zen ehortzia, eta baita osaba non izan zitekeen edo.

• ZURE OSTIZKO LAGUNEK ETA, BAZEKITEN ZURE EGOERAREN BERRI? ESKOLAN ZER ESATEN ZUTEN?

30-40 ume izanzen ginen eta seguru haietako inork ere ez zekiela gure etxeko tragedia. Geroago bai, handitutakoan; nik neronek ere azaldu izan diet. Gero bai, baina hori demokrazia etortzean, 1977an edo.

• ETA ADINEKOEK?

Bai, bai, adinekoek denek bazekiten, gerra alarguna zela eta abar. Jakitun ziren, bai.

• HEZURRAK BERRESKURATU AL DITUZUE?

Ez, senarra Zizurren fusilatu ondoren bertan ehortzi ote zuten, baina ez da opatu. Oso zaila dela dirudi.

Honekin utziko dugu Jose Luisekin izan dugun elkarriketa mamitsua. Horrelako beste gertakizun anitzetan bezala historia ez da bukatu, ez baitakite non dagoen ehortzia. Eta ez da erraza izanzen Zizurko hilketen historiak dakarrenez.

Espainiako gerra aspaldikoa da gehienontzat, baina ez denendako, oraindik anitzek bizi-bizi baitute beren bihotzean, familiakoek baitituzte bortizki hilak, bazterretan lurperatuak noiz opatuko dituzten esperantzaz.



Txurdan



Jose Luis ▲



Gizona atxilotu eta fusilatu; anaia, berriz, desagertu

Ramon Ramos Garcia, Izquierda Republicanako kidea, Diputazioan anbulantzia txofer lanetan zebilena. Hala kontatu digu Jose Luisek:

Ramon Ramos Garcia gure amaren lehen senarra. 1936ko uztailaren 31an joan zitzaizkion bere etxera, bazkal ondorettoan, falanjistak eta Guardia Zibilak, eta atxiloturik eramane zuten. Gure ama, besoetan zuten urte bateko haurra hartu eta atera zen balkoira, oihuka, eta ikusi zuen nola sartu zuten bere senarra auto beltz batean. Eta beheitik falangistek mehatxatu berehala etxera sartzeko bera ere preso sartzea nahi ez bazuen. Momentu beldurgarria.

Behin-behinekoz, Iruñeko zezen plazan sartu zuten, baina biharamunean manta bat eta jateko zerbatekin joan zenean andrea, esan zioten goiz hartan bertan eramane zutela bertatik. Bardenetara eramane izan ote zen, hori zen esan zena. Urte anitzen ondoren jakin genuen Zizurren fusilatu zutela beste batzurekin batera.

Pentsa, nolakoak ziren orduko autoritate maltzurak: Lantokira joan eta idatzi bat utzi zuten esanez, bere ahaideak gaztigatu zutela ez

zela gehiago lantokira itzuliko. Hori paper ofizial batean alajainena! Gizona hil eta itxurak egiten!

Gure amak oso gaizki pasatu zuen, lanik ez eta inork eman nahi ez gorrien familiakoa zela eta. Eskerrak, egun batean Marceliano zeritzan ostatura joan eta bertako nagusia zenak, PNVkoa zen **Marceliano** Anotzek eman zion lana. Sukaldaria izan zen eta bertan ezagutu zuen gure aita.

Miguel de Carlos Garaikoetxea, langilea, Solidaridad de Trabajadores Vascos-ko kidea, (Oraingo ELA esanen genuke) Abonos de Navarra enpresan ari zen lanean gure ustez.

Gure amaren anaia, 18 urtekoa, Iruñean, Buztintxuriko fabrika batean ari zen lanean. Lan baldintzak oso eskasak omen ziren eta Miguel hasi zen langileak mugitzen eta antolatzen, gauzak hobetzeko. Antza, ausartegia izan zen...

1936ko irailaren azken egunetako batean presaka azaldu omen zitzaion fabrikako adiskide bat ihes egin zezan erregutuka, lantokira ez joateko eta ez joateko, oihuka.

Amak, bere senarraren gabana eta etxean zuten diru puxka hartu eta hala esan zion:

-Tori, eta alde egin ezazu Frantziara, bestela hilen zaituzte.

Eta hala, tarrapataka, alde egin zuen. Beharrik, hogei minutu baino lehenago han agertu omen ziren lau karlista Miguel atxilotzera, eta amak: **lanera joan berri-berria da.**

Ez zuten gehiago inoiz ikusiko.

Seguru jakin ez, baina, dirudienez, mugaldean hil zuten. Egund batez, Frantziako muga aldeko emakume bat azaldu omen zitzaien, esanez,

nola egun batzuez Miguel etortzen zitzaien, gauez, beren etxera, jan bila. Oihanean gordeka zebilen eta Frantziara pasatzeko asmotan omen zen. Eta Auritz, Otsagabia, Isaba... hor nonbaitekoa izan behar zuen emakume hori. Miguelek mandatu hau utzi omen zien:

-Etortzez uzten badut, seinale muga pasatu dudala edo bestela atxilotu nautela. Hala izaten bada, pasa iezaiozue abisu gure amari, halako eta halako tokian bizi denari.

Eta hala egin zuen muga aldeko emakume horrek, Miguelen eskarioa zuzen bete.

Gure amaxik dena entzun eta buruan hartu bai, baina nongoa zen ez zuen kontatu nahi izan eta hala hil zen, esan gabe, beldurraren beldurrez!

Jakin izan bagenu non ibili zen, zehatz-mehatz, beharbada hortik tiraka, zerbait jakitea erdietsiko genuen. Aurki, atzetik zebiltzkiola hil eginen zuten, edo atxilotu eta fusilatu. Pentsatzekoa da muga pasatu izan balu, familiarekin harremanetan jarriko zela eta bere berri jakinen genuela. Bizi dena agertzen baita, esana den bezala.

Hemezortzi urteko mutila horrela desagertu zen.



Luisa de Carlos, protagonista



Ostizko ostatua



Legatza errea patatekin

Martin Ansorena itsasoarrak inguru hauetako legatzik goxoen prestatzen duela esana ziguten, eta horregatik deitu genion gure sukaldaritza tarterako. Itsasoko ihoteetan urtero bera izaten da elkartean afaria prestatzen duena. Menua zein den? Argi dago, legatza labean egina! Erraza eta goxoa, prestatu zuek ere zuen etxeetan!

OSAGIAK

Hiruzpalau patata

Legatza

Perrexila

Olio

Ozpina

Baratxuria

• PAUSOAK:

1) Patatak panadera modura moztu, legatza erreko dugun bandejaren oinarrian olio txorrotada bat bota eta patatekin bete, gatz pixka bat bota gainetik eta labean sartu bost minutuz 250°tan.

2) Patatak labetik atera, eta legatza zabalik jarri jada erdi-eginak dauden pataten gainean. Segidan hezurra bereiziko diogu: ez da kendu behar, soilik labanarekin bereiziko dugu haragitik askatzeko, baina bere horretan utziko dugu hezurra, legatzaren erdian, zaporea ematen dio-eta. Bandaja patata eta legatzarekin berriz labean sartuko dugu, 20 minutu inguru edukiko dugu.

3) Baratxuria xerratan moztu, eta zartagin batean jarriko dugu olio askotan su ez tian frijitzen. Baratxuria nahiko frijitua dagoenean perrexila gehituko diogu txiki-txiki egina, eta hozten utziko dugu.

4) Legatza egina dagoenean, honezkero hoztua dagoen baratxuri, olio eta perrexilari ozpin txorrotada bat gehituko diogu zartaginera eta guztia berotzen jarriko dugu berriz. Bor-bor minututxo batez eduki ondoren, legatzari botako diogu gainetik.

5) Eta, listo, mahaira! Orain, on egin!!

Legatza patatekin, goxo-goxoa!



▲ Martin eta Maria Jose itsasoarrekin sukaldean



Konbidatu gaituzte urtebetetze batera

Konbidatu gaituzte urtebetetze batera.

Betetzen dituen urteak kopuru handi-borobila dela eta, urtebetetze ez ohikoa prestatu du familia eta adiskideendako. Hobeki esan, bere familiak prestatu eta oparitu dio, eta gu ere taldean sartzen garenez, konbidapena hartu dugu.

Garaiz joan, zizka-mizkak bazkaltzera sar aurretik, eta gero, ondoren, bazkari ederra. Ez, ez naiz kexu bazkariaz, zinez, ongi eman digute bazkaltzera. Dena dela, edarien artean ardo bitxi xamar bat ere atera digute, ardo berdea dela jartzen du. Arront ahula, 5,5° besterik ez baitu, eta gozoa ezin ahalakoa. Italiarra omen. Vermut gorri italiar burukomin egintzailea ekarri dit gogora. Erremedio gozo gogaikarria bezalakoa.

Abilidade apartekoak dira gero italiar hauek gauzak saltzeko, izan arropa, izan ardoa, izan pasta.... edozein gauza saltzeko gauza dira. Pentsa, Mafia bera ere ederki esportatu dute Iparrameriketara eta hona ere bai. Bai, bai, jakizu Pizzeria Mafia delako bat badela Iruñean.

Bai, ardo gozoa, ahula, eta txarra ezin ahalakoa, Vermutaren parekoa.

Gorroto nik.

Bazkal buruan hara, non sartzen den tuna txiki bat, espainolkeriaren gailurtzat izan dudana.

Txalo artean hartu dute; jendea prest da ongi pasatzeko: batzutan kantatu, aldika dantzatu. Tuna honek jota utzi nau. Umezurtz gelditu den nerabe bat sentitu naiz. Erabateko deserrian, aberritik urrun, ez naiz Iruñean senti. Noiz da bukatuko?

Noizbait bukatu dela dirudi; jendea mahaian inguruan, solasean. Baretasuna.

Baina zer inporta zaie bost tuno horiei? Hor segitu baitute, jo eta jo, atertu gabe, hego-amerika guziko herrialdeak bisitatuz. Bai, benetan, deserrian gaude. Nafarrak omen tunakoak. Nafarroakoak bai, baina nafartarrak? Noraino gauden kolonizatuak! Noraino dagoen Nafarroa kolonoez beterik! Etxea dut gogoan, gure txokoak, gure haurtzaroa, aberria dut eskas atzematen momentu honetan. Halako ezinegon bat sartu zait bihotzean.

Kolono, kolonizatzaile eta kolonizatuen artean nago. Ez

dira ohartu ere egiten. Ez gaituzte ikusten, Euskal Herriko hiri buruzagian ez bagina bezala, gu existituko ez bagina bezala. Eta, bai, ez gara existitzen. Horientzat gu ez gara, ez gara izan eta ez gara izanen.

Ardo txar mikatz ozpin hau irentsi behar al dut ikustate, errespetu, begirune... ez dakit zeren izenean?

Festa bukatuko ote da laster? Hala ematen du. Hala ere, iraunen ote dut bukatu artio? Nekez! Ez dut uste. Ezin dut! Banoa. Akabo! Ardo goxo italiar honek okitu nau. Ardo nafarrik ez zen inon ageri gaurko urtebetetzean.



Txurdan

Hiztegia

Kopurua: numeroa

Ez ohikoa: korrientea ez dena.

Zizka-mizkak: entrantes

Ezin ahalakoa: ezin handiagoa, ezin ederragoa...

Gogaikarria: nazkagarria.

Umezurtza: huerfano.

Nerabea: adolescente

Baretasuna: trankilitatea.

Atzeman: harpatu.

Buruzagia: jefe

Ikustate= errespetu
=begirune

Okitu: hartar(se) hastiar(se)

Oharrak

Baztan, Bera, Irun...alderdi horretan ardogoxoa moskatelari deitzen diote. Nik gaur italiar ardo txar bati deitu diot. Ez zuen merezi horrela deitzea.



▲ Berri txarrak, Lekunberriko musika talde famatua. Gure bazkaldarretako nork ezagutzen ote zuen talde hau?

Zorionak Zorionak !



Zorionak Ilargi !!



Zorionak Luis, Marta eta Ehi !!



Zorionak Beñat !!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!

pulunpe@gmail.com

RURAL KUTXAREN INBERTSIO FUNTSAK

FUNTSETAN PENTSATZEN BADUZU,

INBERTITU ELENARENGAN.

965
AHOLKULARI

Elena kasu, inbertsio
prozesu osoan zuri
laguntzeko prest dagoena.

DENA
ERRAZAGOA DA
HURBIL BAZAUDE


**CAJA RURAL
DE NAVARRA**
cajaruraldenavarra.com

Inbertsio funtsetan, inbertitutako kapitala eta enbentagaitasuna ez daude bermatuta. Informazio hau neurriz konbertitua da, eta ez da inolaz ere inbertsioei buruzko eskaintza, gomendio, harpidetza edo aholkularitza finantzazterel hartu behar. Informazio honak ez du ordokatzan lagarria dokumentazioa; inbertsioei buruz azter erabaki aurretik, dokumentazio hori irakuri behar da. Funtsei buruzko informazio eta inbertitzaileentzako oinarriko ditutak jasotzen dituen agria Rural Kutxaren bulegoetan, www.ruralvia.com webgunean eta Bakoia Merkataritza Batzorde Nazionalan konturatu daitezke. Funtsetan egindako inbertsioen balioa merkataritza gora-beheren araberakoa da. Kudeatzailea: GESCOOPERATIVO S.A.S.B.I.C. Gortelluakoa. Banco Cooperativo Español.



Nafarroako Gobernuaren kirol arloko zilarrezko domina, Gartzarongo Mikel Jaunarenari

Mikel Jaunarena 'Zepelo' saritu du Nafarroako Gobernuak kirolaren arloan banatzen dituen zilarrezko dominetako bat berari emanaz. 35 urtez Gartzarongo pilota txapelketa entzutetsua antolatzen aritu izana eta orokorrean gure eskualdean pilotaren alde egindako lana eskertu nahi izan diote sariarekin Jaunarenari. Nafarroako kirolaren alde egin duten 25 pertsonari eman dizkiete zilarrezko dominak, tartean gartzarondarrari. Urrezko domina, berriz, Alberto Undiano Mallenco arbitro ohiari eman diote.

Zerbait mugitzen ari zirela banekien, baina ez nuen horrelakorik espero. Publiko egin zuten egunean bertan deitu ninduten, eta sorpresaz harrapatu ninduen, azaldu digu Zepelok. Gartzarongo Toki Alai Elkartetik Baztango Juanjo Acha saritzea proposatzekoak zirela ere azaldu digu, hango pilota txapelketaren antolakuntzan aritu dela eta. Baina, azkenean, bera izan da saritua aurtengo honetan. Sarituen artean pilotaren munduko beste bi pertsona ere badaudela esan digu Zepelok.

35. urteurren borobila

1985 inguruan hasi ziren Toki Alai elkartekoak pilota txapelketaren antolakuntzan. "Bost pertsonako talde bat hasi ginen orduan, Vicente Legarra aritu zen bost urtez lanean. Hura hil zenean hasi nintzen ni txapelketa eramaten". Geroztik, Jexux Jaunarena eta Miguel Legarrarekin eskuz esku aritzen da lanean. Uda osoa irauten duen txapelketa izanik, bost hilabetez kasik horretara bakarrik dedikatuz aritzen direla kontatu digu Zepelok. "Lan asko ematen du txapelketa antolatzeak, bai, baina egia da jendea gustura etortzen dela, eta horrek poza ematen du", dio.

Lehen urtean 60 bat bikotek eman bazuten izena txapelketan, aurtun 272 izan dira jokatu dutenak. Errekorra lortu dute izen emate aldetik. Baina Gartzarongo Txapelketaz gain, pilotarekin lotutako beste hainbat ekimenen atzean ere badago Zepelo: pala eta frontenis txapelketa ere antolatzen dute urtero, baita pilota goxua txapelketa ere... ez dira geldirik egotekoak!

35. urteurren borobil hori ospatzeko eta egin duten lana eskertzeko, Gartzarongo Txapelketako finalaren ondoren Toki Alai elkarteak ere egin zien bere omenalditxo hiru antolatzaileei. Sari banaketa eta gero aurrekua dantzatu zieten herriko bi gaztek, eta txapelak ere oparitu zizkieten. Zorionak, beraz, Zepelori, eta zorionak Gartzarongo Txapelketari ere!



Zepelo, Jexux Jaunarena eta Miguel Legarra omendu zituzten Gartzarongo txapelketaren bukaeran



Lurraren

Aztarnarik gabeko hamarretakoak

Dagoeneko espero dut ontzientzako erabiltzen duzuen zakarrontziak pisua galdu izana. Nabaritu al duzue? Ba, oraindik ere zakarrontziak husten jarraitzea proposatzen dizuet.

Horretarako, eguneko otordu garrantzitsu bat ekarri dut hizketagai, hamarretakoa. Goiz erdiangoseanola asezakarrontzia bete gabe, hona hemen hilabete honetarako erronka. Ohikoa da goizean ikastetxe edota lantokietara iristean zakarrontziak hutsik egotea. Begiratu al dituzue noizbait nola geratzen diren hamarretakoaren ondoren? Badirudi beraiek ere otordua egin dutela: aluminiozko papera, tetrabrika, film plastikoa, plastikozko poltsatxo edota potetxoak... hori izaten da zakarrontzi horien menurik ohikoena. Magia bezala desagertzen dira hurrengo goizerako, lurrak irentsi balitu bezala. Lurrak ezin du horrelako liseriketa astunik egin, ordea, eta lurrean pilatzen ditugu zakar mendi berriak sortuz edota zabor gose diren munstroak, erraustegiak alegia, elikatuz.

Garai batean oihalezko zakuto batean edo, gehienez ere, egunkari paperean bilduta eraman ohi ziren hamarretakoak; izan fruta ale bat edo otartekoa. Gaur egun, hamarretarako jaten ditugunak bezainbeste zabaldu da hauek biltzeko erabiltzen ditugun material kopurua, erabilera bakarrekoak horietako asko: aluminiozko papera, tetrabrika,

film plastikoa, plastikozko poltsatxo edota potetxoak...

Hau horrela izanik, norbaitek pentsatuko du kolore guztietako zakarrontziak eskatu beharko ditugula lantoki, ikastetxe zein eraikin publiko guztietan. Proposamena asko z errazagoa da, lasai, ez duzue inor konbentzitu behar. Besterik gabe, hondakinik gabeko hamarretakoak eraman eta zerbait eskatzekotan, jar diezazuetelagai organikoarentzako konpostagailua. Hamarretarako, gainontzekoak sobran daude.

Hondakinik gabeko hamarretakoak osasuntsuagoak ere badirela ohartuko zara, on egin!

Lurra



▲ aluminiozko papera, tetrabrika, film plastikoa eta horrelakoak erabili ordez, oihalezko poltsatxoak edo antzekoak erabili ditzakegu otartekoa eramateko



Urte literario berria: azken nobedadeak liburutegian

Durangoko azoka, eguberrietarako nobedadeak, egunotan banatzen diren hainbat sari literarioak... Esan daiteke urte literarioa abenduan hasten dela. Eta liburutegian ere urte berri hori ospatzen saiatzen gara nobedade horietako batzuk gure apalategietara ekarriz.

Sariei dagokienez, azken asteotan banatu dira besteak beste Euskadi sariak, Narratibaren sari nazionala edo Espainiako Letren saria. Azken hori jaso du Bernardo Atxagak, eta hori aitzakia hartuz, interesgune bat jarri dugu liburutegian. Hau da:

Atxagaren liburuak bildu eta eskura jarri ditugu mahai batean. Liburu horien artean badago Atxagaren azken lana. Etxeak eta hilobiak du izenburua eta Atxagaren beraren esanetan bere azken eleberria izango da. Auskalo, hainbeste aldiz entzun dugu halako gauzak idazle ospetsuen ahotan... Eduardo Mendozak, adibidez, esan zuen aspaldi eleberria hilda zegoela, baina besteen eleberriak ziren, dirudienez, ordutik dozena erdia nobela kaleratu baititu Mendozak berak.

Etxeak eta hilobiak, Atxagaren azken nobela

.....

Baina itzul gaitezen Atxagarekin.

Bere azken-azken nobela labetik atera berria dago eta oraindik zuen liburuzain maitiak ezin izan du irakurri, beraz ikusi dezagun kontrazalak diona:

Ibai bakarrera jotzen duten errekek dira Bernardo Atxagaren azken nobela hau osatzen duten piezak. Zein bere bidetik doala dirudi, baina korronteak, logika narratibo sendo batek, norabide berean daramatza denak.

Badoaz urak, eta badoa irakurlea Ugarteko herritik Pauera, edo Baionara, edo Gaztelara, edo Texasera. Etengabea damugimendua. Etengabea protagonisten joan-etorria ere. Narrazioan sartu eta atera dabilta txikitan bat izandako anaia bikiak, Frantziara frantses ikastaro bat egitera joan eta mutututa itzuli den nerabea, Madrileko El Pardo kuartelean gertatu diren lau lagunak, astero Baionako psikiatra batengana joaten den ingeniaria, From fat to fit telebista programaren protagonista, sindikatu baten aldizkarian diharduen emakume gaztea, ospitaletik alde egiteko gogoz dagoen neskatoa...

Ezagutzen genuen lehendik ere Atxagaren ahalmen poetiko handia, unibertso osoak eta sakonak eraikitzeko gaitasuna. Narratzaile aparta dela ere bagenekien. Dohain horietaz gozatzeko aukera izango du irakurleak Etxeak eta hilobiak honetan. Betiko Atxaga dugu, alde horretatik. Baina ofizioak findutako idazkerarekin dator oraingoan. Heldutasunak ondutako begiradarekin.





Cristina Morales eta Lectura fácil liburuaren polemika

Banatu den beste sari literario bat Narratibaren Sari Nazionala izan da eta irabazlea Cristina Morales izan da, bere eleberriarekin, Lectura fácil. Polemika handia piztu da Cristina Moralesen hitz batzuekin. Orain Cuban bizi da beka bati esker, eta saria eman eta berehala egin zioten elkarrizketa batean esan zuen: "Bartzelona sutan ikustea nahiago dut frankiziaz eta turistaz beteta baino". Hori esanda, jakina, jende askok, edo agian ez hainbeste baina betikoak haserretu ziren berarekin. Albert Riberak adibidez esan zuen ez zuela merezi saria, eta dirua itzuli beharko lukeela... Eta horretaz aparte liburuaz hitz egiten hasi ziren, gaizki, noski, irakurri gabe.

Eta guk, hau bai, irakurri dugu, eta beraz konta dezakegu zertan datzan: Lectura fácil eleberriak lau emakumeren istorioa kontatzen du: Marga, Nati, Patricia eta Angels, ezgaitasun intelektualeko maila desberdinak dituztenak, Bartzelonan etxebizitza bat partekatzen dutenak, eta testuinguru honetan bizi direnak: langabezia, etxegabetzeak, okupak, ateneo libertarioak... Oso liburu ahaltsua, beraz, eta interesgarria. Izan ere, liburutegi askotan itxaron zerrendan sei hilabeterako dago liburu. Gurean ez dela izango hain-besterako espero dugu.



Amazonen kontra eta oilarren borroka

Beste liburu bat: Contra Amazon, Jorge Carriónena. Izenburua, berez, oso esanguratsua da. Entsegu honek, hainbat artikuluz osatua, azaltzen du nola Amazon literaturaren eta kulturaren kontrako etsai bihurtu den, dena bateratu edo uniformatu duelako eta bakarrik liburu eta egile salduenei ematen dielako garrantzia. Betiko liburu-denden, liburutegien eta irakurketaren aldeko manifestu bat da, azken batean, eta horregatik liburutegitik behar genuen aldarrikatu.

Eta nobedadeekin bukatzeko ipuin bilduma bat: Pelea de gallos, Maria Fernanda Ampuero Ekuadorko idazlearena. Indarkeriaz betetako ipuinak dira ipuin feminista hauek, gordinak, krudelak, arriskutsuak eta era berean ederrak, oso gomendagarriak.



Literaturaz aparte badago ere ziur aski ezagutuko duzuen pelikula berri bat apalategian: Black is beltza, Fermin Muguruzarena (komikia ere liburutegian daukagu). Hau da sinopsia: "1965eko urrian gaude. New Yorkeko Bosgarren Hiribidean desfiletzeko gonbita jaso du Iruñeko sanferminetako erraldoien konpartsak. Ezingo dute, ordea, denek desfileatu: arrazagatiko bereizkeria dela kausa, agintari ipar-amerikarrek debekatu egin dute erraldoi beltzen parte-hartzea"...

Liburutegien arteko mailegua

Filmez eta liburuez gain beste nobedade inportante bat -zerbitzu berri bat- izango dugu laster liburutegien: liburutegien arteko mailegua. Espero dugu datorren urte berriarekin batera martxan jartzea. Baina zer da liburutegien arteko mailegua? Zerbitzu honi esker liburutegian ez dagoen liburuaren bat eskatzen ahal zaio besteliburutegibati, eta postabidez bidaliko digute hemen erabiltzeko edo hemengo irakurleok bere etxera eramateko. Nafarroako liburutegien sarearekin lan egingo dugu zerbitzu hau eskaintzeko eta, beraz, erabiltzeko haien karneta izatea beharrezkoa da, eta baita hainbat baldintza betetzea ere. Adibidez, gehienez hamar mailegu egiten ahal dira urtero, eta saiatu behar da benetan zaila aurkitzeko liburu bat izatea maileguan eskatzen dena, edo logika erabiltzea: ez eskatu azken nobedadeak edo instituturako edo eskolarako umeek behar duten liburua, diru pixka bat aurrezteko bakarrik. Idazleek ere bizi behar dute eta agian ez da itxaron behar sei hilabete liburutegian liburu bat hartzeko, erosi baizik.

Ongi izan!
Eta ongi irakurri!



 **Patxi Irurzun**
Ultzamako liburuzaína

2019ko urria (OCTUBRE)

Gure alderdian, urrian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

ATETZ **Eritzegoiti**

Aimar Elortza Rodriguez, Aritz eta Inmaren semea, urriaren 14an sortu zen.



▲ *Aimar amaren besoetan*

ULTZAMA **Suarbe**

Nahia Villava Altuna, Xabier eta Josune-ren alaba, urriaren 10ean sortu zen, **Polloneko bordako maistarretxean**.



▲ *Nahia amaren besoetan*

“
Zorionak gurasoei”

Heriotzak:

ANUE **Burutain**

Carmen Morote Ioldi, urriaren 9an hil zen, 93 urtetan. **Ximoneko** etxeikoan-dre zaharra.



▲ *Carmen Morote*

BASABURUA **Orokieta**

Pedro Larraintzar Ostitz, urriaren 6an hil zen, **Bordakoetxeko** nagusia.



▲ *Pedro bere ilobekin*

“
Gure oroimenean
izanen zarete”

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**


**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Zozketa Mundiala



2019

Sarien Zerrenda
Lista de Premios

Asteburuko Bidaiak 2 Lagunentzat

3

3 Fines de Semana para 2 Personas

Txerri Gizen

10

Axuri Eder

10

10

Cerdos Gordos

10

Hermosos
Corderos

Bazkari edo Afari Bikoitz

18

18 Comidas o Cenas Dobles

eta...beste anitz sari!!
y...un montón de regalos más

www.amezti.eus

